

BESTELAKO XEDAPENAK

GOBERNANTZA PUBLIKO ETA AUTOGOBERNU SAILA

574

AGINDUA, 2023ko urtarrilaren 18koa, Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuarena, zeinaren bidez Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan inskribatzen baita Fundación Oreki izeneko fundazioaren estatutuetan egindako aldaketa, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzko ekainaren 2ko 9/2016 Legea egokitze.

2022ko abuztuaren 3an, eskabide bat sartu zen Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailean, Fundación Oreki izeneko fundazioaren estatutuen aldaketa Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan inskribatzeko. Aldaketa hori Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzko ekainaren 2ko 9/2016 Legea egokitze egin zen. Fundazioaren patronatuak 2022ko ekainaren 16an erabaki zuen aldaketa, eta publiko bihurtu zen 2022ko ekainaren 17an, Lasarte-Orian, Javier Mota Pacheco notario jaunaren aurrean egiletsitako eskrituraren bidez (protokolo-zenbakia: 1.268). Eskabide-idazkiari espedienteko dokumentazioa erantsi zitzaion.

Estatutu-testu osoa ekainaren 2ko 9/2016 Legea egokitzeaz gain, estatutuen 3.1 artikuluan deskribatutako fundazio-xedeak zabaltzen direla ikusten da.

Orain arte, fundazioaren helburuak dira jarduera fisikoaren, kirolaren eta kulturaren arloko ikerketa-, garapen-, sustapen-, prestakuntza-, hezkuntza- eta lankidetzajarduerak sustatzea, gauzatzea, laguntzea, finantzatzea eta abar.

Adostutako aldaketak ez dakar, funtsean, fundatzaileek ezarritako helburuak aldatzea edo eza-batzea, eta, ondoren, estatutuen 3.1 artikulua honela idatzita geratuko da:

Hauk dira Fundación Oreki fundazioaren interes orokorreko helburuak: jarduera fisikoaren arloko, kirolaren arloko, kulturaren arloko eta komunitate-sustapenerako beste jarduera batzuen arloko ikerketa-, garapen-, sustapen-, prestakuntza-, hezkuntza- eta lankidetzajarduerak sustatzea, gauzatzea, babestea, finantzatzea eta abar.

Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuari dagokio estatutuak aldatzeko espediente hau Agindu bidez ebaztea, hauekin bat etorriz: Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Babesletzaren eta Erregistroaren Erregelamendua onartzen duen uztailaren 23ko 115/2019 Dekretuaren 3.1.a) artikulua; Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazio sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta horien eginkizunak eta jardun-arloak zehazten dituen lehendakariaren irailaren 6ko 18/2020 Dekretuaren 7.1.n) artikulua, eta Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen dituen urtarrilaren 19ko 8/2021 Dekretuaren 3.1 artikulua.

Espedienteari funtsezko irizitako datu eta dokumentu guztiak erantsi zaizkio, eta bereziki bete dira Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzko ekainaren 2ko 9/2016 Legearen 37. eta 51.2 artikuluetan eta Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Babesletzaren eta Erregistroaren Erregelamendua onartzen duen uztailaren 23ko 115/2019 Dekretuaren 42. artikuluan aurreikusitako baldintzak. Horrenbestez, estatutuen aldaketa bat dator aplikagarriak diren lege eta erregelamenduetan ezarritakoarekin.

2023ko otsailaren 3a, ostirala

Hori guztia kontuan hartuta, honako hau

EBAZTEN DUT:

Artikulu bakarra.– Fundación Oreki izeneko fundazioaren estatutuen aldaketa Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan inskribatzea, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzko ekainaren 2ko 9/2016 Legea egokitzeko, Agindu honen datarekin, 2022ko ekainaren 17an, Lasarte-Orian, Javier Mota Pacheco notario jaunaren aurrean egiletsitako eskritura publikoan aurreikusitako baldintzetan (protokolo-zenbakia: 1.268).

XEDAPEN GEHIGARRIA

Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea eta interesdunei bidaltzea.

AZKEN XEDAPENA

Agindu honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, ondorioz, honen aurka aukerako berraztertze-errekurtsoa aurkez daiteke Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburu honen aurrean, agindua jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera, hilabeteko epean; bestela, Administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salan, bi hileko epean, agindua jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2023ko urtarrilaren 18a.

Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburua,
OLATZ GARAMENDI LANDA.